



# **GARESKO UDAL BARNEKO**

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA

**2023-2027**



# AURKIBIDEA

<b>1.- SARRERA</b>	<b>03</b>
<b>2.- PROZESUA</b>	<b>04</b>
<b>3.- DIAGNOSIA. Nondik gatoz?</b>	<b>05</b>
3.1. Zenbat gara eta nolakoak gara Garesko Udalean?	<b>05</b>
3.2. Erakundearen galdetegiaren emaitzak	<b>08</b>
3.3. Langileen galdetegiaren emaitzak	<b>16</b>
3.4. Indarguneak eta hobetzekoak (AMIA)	<b>17</b>
<b>4.- ERABILERA PLANAREN HELBURUAK ETA PLANGINTZALDIRAKO LAN ILDOAK</b>	<b>18</b>
<b>5.- 2023-2027 PLAN ESTRATEGIKOAREN ADIERAZLE TAULA</b>	<b>22</b>

# 1. SARRERA

Txosten honetan jaso dugu Garesko Udalaren Euskara Normalizatzeko Plana. Dokumentuaren helburua da erakustea euskarazko jardunak zer toki duen udal honetan, eta hura hobetzeko zer pauso eman behar diren. 2023-2027 artean izanen du balioa txosten honek.

Ahize-AEK-k egin du plana eta horretarako Garesko Euskara Teknikariarekin batera, udal langileen eta ordezkarien parte-hartzea izan du. Udal langile eta ordezkari guztiei zuzendutako plana da, behin plana udalbatzatik pasatuta, denek bete beharko dituzte bertan jasotzen diren irizpideak.

Eskuartean dugun plan hau egingarriak eta bitarteko eraginkorrak finkatu nahi ditu hurrengo borts urteetarako, eta horrela jasota dago dokumentu honetan.

## 2. PROZESUA

Metodologiak 3 une garrantzitsu jaso ditu, udal barrukoan planean:

### 1. Diagnostia:

Fase honetan Garesko Udalari dagozkion datuak eta informazioa jaso eta aztertu da (udal barruko funtzionamendua, hizkuntza-irizpideak, langileen hizkuntza gaitasuna eta jarrera...). Bi galdetegi egin dira, bata erakundeak betetzeko, informazio zehatza jasotzeko eta bertzea langileek betetzeko, eguneroko lan funtzionamendua zein den jakiteko, iritzi eta proposamenak ere jaso dira. Datu horiekin guztiekin Udal erabileraren diagnosi zirriborroa osatu du Ahizek.

### 2. Kontrastea:

Diagnostia osatzeko lan-mahaia osatu da, langile eta arduradun politikoeekin.

### 3. Diseinua:

Udal barruko mahaia batu ondotik eta bertan jasotako informazio guziarekin, plan estrategikoaren zirriborro hau aurkeztu da. Behin betiko Udal erabilera plana osatzeko Euskara zerbitzuarekin kontrastatuko da dokumentu hau ondotik Udalbatzak onartzeko.


Erabilera plana osoko bilkurak onartuko du eta osoko bilkura horretan bertan, plan honen jarraipenaren ardura izanen duen Jarraipen batzordea eratzea eta batzordeko kideak Udalak izendatuko ditu.

## 3. DIAGNOSIA. Nondik gatoz?

### 3.1. Zenbat gara eta nolakok gara Garesko udalean?

#### Garesko politikariak 2022

11 politikari osotara; horietatik hiruk euskaraz dakite eta batek ulertzen du.



#### Garesko plantilla organikoaren ezagutza eta euskara maila:


Lanpostuak	Euskara eskakizuna	Ezagutza maila
Idazkaria 1		C1
Kontu-hartzailea:		0
Administrari Ofiziala 1		2
Administrari Ofiziala 2		3
Administrari Ofiziala 3		0
Zerbitzu Anitzetako koordinatzailea:		1
Zerbitzu anitzetako enplegatua (etxezaina):	Euskara B2	3
Zerbitzu anitzetako enplegatua (igerilekua):		1
Zerbitzu anitzetako enplegatua 1:		3

Zerbitzu anitzetako enplegatua 2:		B2
Zerbitzu anitzetako enplegatua 3:		1
Zerbitzu anitzetako enplegatua 4:		2
Zerbitzu anitzetako enplegatua 5:		3
Zerbitzu anitzetako enplegatua 6:		0
Euskara Teknikaria:	C1	C1
Udaleko arkitekto-teknikoa-aparejadorea:		3*
Turismoko Teknikaria:	B2	0

[1] Zenbakiak langile bakoitzaren ezagutza-maila zehazten dute. Norberak kalifikatu du bere ezagutza kasu gehienetan; beraz, erreferentzia subjektiboak dira. Mailak honako hauek dira:

0. Ez daki ezer
1. Zerbait ulertzen du eta agurtzeko gai da
2. Ongi ulertzen du baina mintzatzeko eta idazteko zailtasunak ditu
3. Ongi ulertu eta hitz egiten du

**Zein da zure euskara maila ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko?**  
**¿Cuál es tu nivel de euskera, en qué medida entiendes y sabes hablar, leer y escribir?**



Plantilla organikoan hizkuntza eskakizuna egiaztatua duen langile kopurua % 17,65a da.

Langileek aitortutako hizkuntza mailari dagokionez mintzatzeko gaitasun nahikoa dutenak 6 langile dira eta 7 dira ulertzeko gai direnak. Irakurtzeko gaitasuna 7 langilek aitortu dute eta idazteko, aldiz, 4k.

### 3.2. Erakundearen galdetegiaren emaitzak

Erakundearen irudi korporatiboa						
	Eraikinetako errotulazio orokorra	Erakundearen irudi korporatiboko elementuak	Erakundearen papereko argitalpenak	Hedabideen bitartez zabalduetako iragarki eta publizitatea	Ingurune digitala: webguneak eta tramitazio telematikokoak	Ingurune digitala: sare sozialak eta komunikaziorako aplikazio digitalak
Gaztelera hutsean	10	0	10	0	10	0
Euskara hutsean	0	0	5	0	0	0
Ele bietan	90	100	85	100	90	100

Ordenantzek diotena: *Udalaren kanpo irudia 11. artikulua*. Garesko Udalak gaztelania eta euskara erabiliko ditu herritarrentzat, oro har, ari denean. Kasu honetan nahiko ongi betetzen da euskararen erabilera.

### 3.3. Langileen galdetegiaren emaitzak <sup>1</sup>

16 langilek osatu zuten galdetegia.

Garesko Udalaren ahozko hizkuntza harremanak:

#### Telefonoz

11 langilek artatzen dute telefonoa eta horietatik %75ak beti edo ia beti hasierako hitza gaztelaniaz egiten du.

Harrera telefonoz egitean herritarren hasierako hizkuntza: %58,3 beti edo ia beti gaztelaniaz eta % 41,7 gaztelaniaz euskaraz baino gehiago.

Telefono bidezko harremanetan oro har izandako elkarrizketak bere osotasunean hartuta: %75 beti edo ia beti gaztelaniaz eta %25 gaztelaniaz euskara baino gehiago.

Ordenantzak: Herritarren eskubideak 7. artikulua. Herritarrek Garesko Udalarekin euskaraz nahiz gaztelaniaz aritzeko eskubidea dute. Kasu honetan ez dute ordenantzek diotena betetzen.

#### Aurrez aurre

13 langilek artatzen dute aurrez aurre herritarra eta horietatik %53,3k beti edo ia beti hasierako hitza gaztelaniaz egiten du, % 33,3k gaztelania euskara baino gehiago eta eta 13,3k euskaraz gaztelaniaz bezain bertze.

Aurrez aurreko harremanetan herritarren hasierako hizkuntza: %53,3 beti edo ia beti gaztelaniaz eta % 46,7 gaztelaniaz euskaraz baino gehiago.

Telefono bidezko harremanetan oro har izandako elkarrizketak bere osotasunean: %40 beti edo ia beti gaztelaniaz egiten du eta %25 gaztelaniaz euskara baino gehiago. Ahozko harremana euskaraz izatea nahiago duten herritarren kasuan erabilitako hizkuntza: % 46,7 beti edo ia beti gaztelaniaz, % 13,3 gaztelaniaz euskara baino gehiago, % 6,7 gaztelaniaz euskaraz bezain bertze, % 6,7 euskaraz gaztelaniaz baino gehiago eta % 26,7 beti edo ia beti euskaraz.

---

1 Eranskina 1: galdetegia osorik.



Ordenantzak: Herritarren eskubideak 7. artikulua. Herritarrek Garesko Udalarekin euskaraz nahiz gaztelaniaz aritzeko eskubidea dute. 9. artikulua. Administrazioari ahoz euskaraz egiten dionari euskaraz erantzunen zaio, telefonoz zein bertan agertuta. Kasu honetan ez dute ordenantzek diotena betetzen.

### Herritarrekin bilkurak

10 langilek egiten dituzte herritarrekin bilkurak: % 70ak beti edo ia beti gaztelaniaz egiten du eta % 30ak gaztelaniaz euskara baino gehiago.

### Lan hizkuntza

16 langilek erantzundakoak:

Lankideen arteko hizkuntza harremanak: % 56,3 beti edo ia beti gaztelaniaz, % 37,5 gaztelaniaz euskaraz baino gehiago eta % 6,3 euskaraz gaztelaniaz bezain bertze.

Lankideekin bilerak: % 87,5 beti edo ia beti gaztelaniaz mintzo da, % 6,3 gaztelaniaz euskaraz baino gehiago eta % 6,3 euskaraz gaztelaniaz bezain bertze.

### Ordezkeri politikoekin

16 langilek erantzundakoak:

Hizkuntza harremanak: % 62,5 beti edo ia beti gaztelaniaz, % 31,3 gaztelaniaz euskaraz baino gehiago eta % 6,3 euskaraz gaztelaniaz bezain bertze.

### Bertze herri erakundeekin (Udalak, Mankomunitateak, Gobernu...):

16 langilek erantzundakoak:

Ahozko komunikazioan: % 50ak ez du harremanik, % 31,3 beti edo ia beti gaztelaniaz eta % 18,8 gaztelaniaz euskaraz baino gehiago.

### Garesko Udalaren idatzizko hizkuntza harremanak herritarrekin

Herritarrek aurkeztutako idatziak:

- 7 langilek irakurtzen dituzte herritarren idatziak.
- Gaztelania hutsean: % 93,57
- Euskarara hutsean: % 5,00
- Ele bietan: % 3,57

Langileak idatzita edo bertze norbaitek itzulita, zein hizkuntzatan iristen zaizkie dokumentu edo idazki ofizial horiek herritarrei?

9 langilek idazten dituzte herritarrendako dokumentu edo idazki ofizialak

- Gaztelania hutsean: % 75,00
- Euskarara hutsean: % 1,25

- Ele bietan: % 23,75

Herritarrek erakundera euskaraz aurkeztutako idatziei zein hizkuntzatan erantzuten zaie?

- Gaztelania hutsean: % 58,00
- Euskarara hutsean: % 42
- Ele bietan: % 0

*Ordenantzak: Herritarren eskubideak: 8. artikulua. Idatziz Udalari euskaraz egiten diotenei hizkuntza horretan berean emanen zaie erantzuna*

### Idatzizko lan hizkuntza:

Lanean egiten diren dokumentuak; inprimakietan, bidali behar diren mezu elektronikoetan eta abar...

- Langileen % 87k idazten ditu: 14 langilek
- Gaztelania hutsean: % 82,08
- Euskarara hutsean: % 3,33
- Ele bietan: % 20,00

Erakunde barnerako dokumentu ofizialak: prozedura administratiboak, bileretarako dokumentuak, bestelako barne komunikazioak...

- Barne dokumentu ofizialak langileen % 62k idazten ditu: 10 langilek
- Gaztelania hutsean: % 93,33
- Euskarara hutsean: % 2,78
- Ele bietan: % 6,11

Lankideekiko komunikazio ez-formalerako idazten diren oharrak, mezu elektronikoak eta abar, zein hizkuntzatan idazten dira?

- Lankideekin barne dokumentu ez-ofizialak % 87,5ek idazten ditu: 14 langilek
- Gaztelania hutsean: % 93,92
- Euskarara hutsean: % 2,92
- Ele bietan: % 4,17

Lan bileretako dokumentu idatziak (deialdiak, aktak, txostenak...) zein hizkuntzatan egoten dira?

- Laneko bilerak % 87,5ek idazten ditu: 14 langilek
- Gaztelania hutsean: % 73,18
- Euskarara hutsean: % 0,00
- Ele bietan: % 36,82

Bertze entitateetatik jasotakoak (Gobernua, mankomunitatea...)

- % 68,8k jasotzen ditu idazkiak: 11 langilek

- Gaztelania hutsean: % 23,00
- Euskarara hutsean: % 0,00
- Ele bietan: % 73,00

#### Bertze entitateetara bidalitakoak (Gobernua, mankomunitatea...)

- % 43,8k bidaltzen ditu idazkiak: 7 langilek
- Gaztelania hutsean: % 82,71
- Euskarara hutsean: % 0,71
- Ele bietan: % 16,43

*Garesko ordenantzak: **Administrazioen arteko harremanak 5. artikulua.** Garesko Udalak Foru Komunitateko bertze Administrazio Publikoak (tokikoak, autonomikoak, periferikoak) edo euskara ere hizkuntza ofiziala aitortuta duten beste erkidegoetako administrazio publikoak zuzentzen dizkien agiri, jakinarazpen eta harreman administratiboak elebidun idatziko dira oro har... 6. artikulua. Edozein agiri bidaltzen dioten administrazio publiko, entitate edo erakunde horiei, Garesko Udalak ele bitan idatz dezatela eskatuko die.*

#### Enpresa edo entitate pribatuetatik bidalitakoak idatziak:

- % 43,8k jasotzen ditu idazkiak: 7 langilek
- Gaztelania hutsean: % 90,71
- Euskarara hutsean: % 0,71
- Ele bietan: % 7,14


#### Enpresa edo entitate pribatuetatik jasotako idatziak:

- % 37,5ek bidaltzen ditu idazkiak: 6 langilek
- Gaztelania hutsean: % 80,83
- Euskarara hutsean: % 0,83
- Ele bietan: % 1,67

Aitzinean jasotako datu hauek guziak langileek betetako inkestaren informazioa da, baina gaur egun erraten ahal da alkatetzan, idazkaritzan, euskara zerbitzuan, kulturaren eta eskolako atezainak euskarazko zerbitzua bermatzen dutela, horrela bada, Ariguneak dira.

### Baliabide informatikoa


Zure lanerako erabiltzen al duzu baliabide informatikorik (posta elektronikoa, bilatzeak, programa eta aplikazio informatikoak)? Zuk gehien...mático, marca, "no utilizo recursos informaticos"



Ordenantzak: **Euskara sustatzea** 30. artikulua. Teknologia berriekin loturiko programek eta udal bulegoetan erabiltzeko eskuratutako material orok, ahal den neurrian, euskaraz eta gaztelaniaz funtziona dezaten egokituta egon behar dute.


### Euskarazko formazioa

Euskaraz zenbat formazio saio egiteko aukera eskaini da?  
¿Cuántas sesiones formativas se han ofrecido en euskera?



Oharra: hemen berriazko laneko prestakuntza zein hizkuntzatan eskaini den galdetzen da, ez euskalduntze ikastaroei buruz.

Zuk zein hizkuntzatan jasi duzu formazioa?  
 ¿En qué lengua has recibido la formación?




- Gaztelania hutsean / Solo en castellano
- Gaztelaniaz gehiago / Más en castellano
- Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste / Tanto en euskera como en castellano
- Euskaraz gehiago / Más en eukera
- Euskara hutsean / Solo en euskera
- Ez dakit euskaraz / No sé euskera

Euskara Zerbitzuak emandako informazioaren arabera euskaraz formazio eskaintzaren bat egon omen zen 2021ean, baina galderan azken 12 hiletan jasotakoak eskatzen direnez ez da aintzat hartu.

### Hizkuntza kudeaketa: Euskararen ordenantzak

Zenbateraino ezagutzen dituzu Garesko Udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen Ordenantzak?  
 ¿En qué medida con...a en ámbito municipal de Puente la Reina/Gares?




- Asko / Mucho
- Nahiko / Suficiente
- Gutu / Poco
- Batere ez / Nada
- Entitateak ez du hizkuntza irizpiderik / La entidad no tiene establecidos criterios lingüísticos

Zuk zure lanean zenbateraino betetzen dituzu zure lanpostuari dagozkion Euskararen Ordenantzak?  
 En tu trabajo, ¿en qué medida cump..Euskera que corresponden a tu puesto de trabajo?

Langileen % 50ak Garesko euskararen ordenantzak guti ezagutzen dituela onartzen du eta betetzen dituzten galdetzerakoan % 37,5ek ez dituela ezagutzen onartzen du. Aitzinean aurkeztutako datuei kasu eginez erakundeak bere egunerako lanetan ordenantzen erabilera ez duela sistematizatua ondorioztatzen ahal dugu.


Azken hamabi hilabeteetan zein mailatan parte hartu duzu zure erakundeak bultzatutako euskararen

normalizaziorako ekimenetan? ¿En qué ...ión del euskera impulsadas por tu organización?



- Asko / Mucho
- Nahiko / Suficiente
- Gutxi / Poco
- Batere ez / Nada
- Erakundeak ez du euskararen normalizaziorako ekiminik eraman / La institución no ha llevado la iniciativa p...
- Ez du aukerarekin izan euskararen normalizaren aldeko ekimenetan parte hartzeko / No he tenido la oportunidad...


Duela bost urtetik hona, zure laneko ahozko komunikazioetan geroz eta euskera gutxiago ala geroz eta gehiago erabiltzen duzu? Eta idatziz? ¿...municaciones orales de tu trabajo? ¿Y por escrito?



Udaletxean lanean ari direnetik 16tik lau langilek ahozko eta idatzizko maila hobetu dutela balioztatzen dute.

Balorazioa:

Zein balorazio egiten zure erakundearen euskararen erabilerak duen bilakaerari buruz? ¿Qué valoración realizas de evolución del uso del euskera en tu entidad?



- Oso negatiboa / Muy negativa
- Negatiboa / Negativa
- Ez negatiboa ez positiboa / Ni positiva ni negativa
- Positiboa / Positiva
- Oso positiboa / Muy positiva

Langileen % 50 balorazio positiboa egiten du Udalak orain artio euskararen erabileran egindako lanaren inguruan. Argitzea "oso negatiboaren" erantzuna ez dakigula nori dagokion, euskararen aldeko denari edo kontrakoari.

#### Galdetegian jasotako iritzi eta proposamen batzuk:

LORPEN GARRANTZITSUENAK:

- "Adierazpen ofizial elebidunak eta haren aldeko kanpainak egitea."
- "Euskararen normalizazioa ahozko eta idatzizko harremanetan."
- "Euskara-jardueretarako igoera ekonomikoa eta euskara-teknikariaren lanpostuaren lanaldi osoa."

GABEZIAK:

- "Euskara ikastea eta ordutegiak erraztea, lanarekin bateragarri izateko."
- "Udal musika eskolan euskarazko zirkuitua bermatzea."
- "Langileen hizkuntza-eskakizuna."

ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK:

- "Langileak euskalduntzea."
- "Administrazioan euskarazko arreta bermatzea eta Udal barruko zirkuituetan euskararen erabilera sustatzea."
- "Ordenantzen ebaluazioa eta betetze-maila handitzea."

### 3.4. Indarguneak, hobetzekoak eta proposamenak (AMIA)

Oztopoak eta mehatxuak:

- Langileen aldetik euskararekiko interes falta.
- Langileek ez dute hizkuntz eskakizuna ezarrita .
- Formazioak jasotzeko irizpide falta.
- Ez dago nahiko ezagutza euskaraz lasai egiteko.
- Borondate politikoa. Ausardia politikoa falta da euskararen aldeko urratsak emateko.
- Langileendako euskara formazio eskaintza falta.
- Begirale euskaldunen kontratazioak.
- Ordezko udal langileak harrapatzeko zailtasunak.

- Politikoen ahalmena lan egiteko, postu ez liberatuak.
- Talka politikoa urratsak eman ahal izateko.
- Prekaritatea; lanpostuen behin-behinekotasuna.
- Ordezkoak euskara ikasteko.
- Udal musika eskolan euskarazko zirkuituak ez da bermatzen.
- Langileen euskalduntze plan koherente falta.

#### Aukerak eta indarguneak:

- Euskararendako aurrekontua handitu da.
- Baliabide Informatikoak eskaintzen dira.
- Ezagutzak goiti egin du plantillan.
- Hizkuntza paisaia ele bietan dago.
- Arigunune batzuk bermatzen dira Udal barrenean.
- Aliatuak: AEK, administrazioa, Garelako, Tortotxiki,
- Euskara Zerbitzua.
- Euskara ikasteko dirulaguntza.
- Langile batzuen aldeko jarrera.
- Oro har euskararen ezagutzak goranzko bidea erakusten du.
- Euskararen ordenantzak onartuak dauden nahiz eta eguneraketa bat behar duten.
- Plan estrategikoaren diseinua.
- Euskararen presentzia nabarmenagoa udalaren komunikazioetan (sare sozialetan, batzar orokorren deialdian eta oro har kaleko informazioan).



## 4. ERABILERA PLANAREN HELBURUAK ETA PLANGINTZALDIRAKO LAN ILDOAK

Udal ordenantzen arabera, helburuak honako hauek dira: *euskararen erabilera sustatu eta normalizatzea, Udalaren eskumeneko esparru guztietan. Ordenantza hau aplikatuko da Garesko udal mugapean, halakotzat hartuta hura bera zentzu hertsian eta erakundeak, autonomoak izan ala ez, eta zentro mankomunatuak, haren menpe daudenak. Udalaren eskumeneko zerbitzuetan, edozein kudeaketa molde dela medio hirugarrenek ematen dituzten haietan.* Horretarako, Udala izan behar da arlo guztietan eredugarriena, arduradun politikoak eta Udal langile guztiak bat egin beharko dute, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatze aldera. Hala, euskara esparru guztietan zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izanen dela lantzen segitu behar du, hobetu beharreko arloak identifikatu eta horietan eragitea herritarrek Udalarekin dituzten harremanetan, ahoz zein idatziz, euskararen erabilera bermatzeko.

Orain arte egindako ibilbidea aintzat hartuz, agerian gelditu da Garesko euskararen ordenantzak betetzeko zailtasunak daudela; lehenengo eta behin, ordenantzak ezagutarazi eta betetzeko baliabideak ematea garrantzitsua izanen da. Era berean, langileendako hizkuntza trebakuntza eta euskalduntzeko plana zehaztu beharko da, hizkuntza eskakizunek zehaztutakoaren baitan. Kontsentsu politikoa bilatzea ere komeni da, eta azkenik, plan honek jasotzen duen guztia Udalaren sistema orokorrean txertatzea Orain arte aipatutakoa egonkortzen bada eta ordenantzetan onartutakoa betetzeko baliabideak jarriz gero, sistematizaziorako urratsak eginen dira eta etorkizunean udal zirkuitu batzuetan euskara normaltasun osoz egitea bermatu ahalko da.

**ZERBITZU HIZKUNTZA:** Euskararen presentzia eta erabilera indartzea herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

- **ERAKUNDEAREN IRUDIA:** Udalaren irudian euskara eta gaztelaniaren arteko oreka ematea herritarrak euskara erabiltzera animatuz.
- **HERRITARREKIKO HARREMANAK:** Zerbitzuetan euskararen erabilera indartzea euskaraz egiteko hautua egin duen herritarra euskaraz artatua izan dadin. Era berean Udalak proaktiboki jokatzeko gomendatzen dugu, herritarrak euskaraz eskatzera animatzeko.

**LAN HIZKUNTZA:** Lan harremanetan euskararen erabilera areagotzea, ezagutzatik erabilerara urratsak egiten hasi.

- **BARNE HARREMANAK ETA LAN TRESNAK:** Komunikazioan eta lan tresnetan zerbitzu batzuetan euskararen erabilera bermatzea, orain artekoetan erabilera indartu eta berrietan areagotu eta zabaldu.
- **PERTSONEN KUDEAKETA:** Pertsonen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen erabilera indartzea.
- **KANPO HARREMANAK:** Euskararen erabilera areagotzea kanpoko erakundeekiko harremanetan.
- **KUDEAKETA SISTEMA:** Hizkuntzen kudeaketa erakundearen arlo guztietara zabaltzea hizkuntza irizpideen eta jarraibideen ezarpenaren bidez.

## **ZERBITZU HIZKUNTZA - ERAKUNDEAREN IRUDIA**

### **4.1 Herritarrekiko harremanak**

Zerbitzuetan euskararen erabilera indartzea euskaraz egiteko hautua egin duen herritarra euskaraz artatua izan dadin. Lanpostu zehatz batzuk identifikatzea eta horiek euskaraz izan daitezen bermatzea; euskarazko barne zirkuitu bat bermatzea.

#### **4.1.1 Idatzizko harremanak**

Herritarrek idatzia euskaraz eginez gero, euskaraz erantzunen zaiola bermatzea. Langileek hori sistematizatzea, euskaraz jakin edo ez. Euskaraz ez dakitenei itzulpen zerbitzua bere eguneroko lanean integratzea.

#### **4.1.2 Ahozko harremanak**

Herritarrekiko ahozko harremanetan euskararen erabilera areagotzea eta euskarazko komunikazioa eskatzen duenari euskaraz erantzunen zaiola bermatzea. Harrera beti ele bietan egitea, lehen hitza, aurrez zein telefonoz, herritarrek euskaraz egiteko aukera duela jakiteko.

## **LAN HIZKUNTZA**

### **4.2 Barne komunikazioa eta lan-tresnak**

#### **4.2.1 Ahozko barne komunikazioa**

Euskararen erabilera areagotzea ahozko komunikazioetan. Euskaraz dakiten eta ulertzen duten atalen arteko harremanetan euskarazko komunikazioa edota ele bidunak (batak euskaraz eta bertzeak gaztelaniaz) sustatuko dira, bai langileen arteko harremanetan bai langileen eta zinegotzien artekoetan. Garrantzi handikoa da lanlekuan langileek euren artean euskaraz mintzatzea, entzuten den hizkuntza, nolabait errateko, Udalaren irudia ere badelako.

### **4.3. Pertsonen kudeaketa**

Pertsonen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen erabilera indartzea. Euskara ikastaroak egiteko erraztasuna eskaintzea.

#### **4.3.1. Laneko prestakuntza**

Euskarazko prestakuntzaren eskaintza areagotzea eta eskaera sustatzea. Zeregin hori errazteko baliabide eta bitartekoak eskainiko dira: hizkuntza prestakuntza (ikastaroak eta trebakuntza), aholkularitza, zuzenketa, itzulpena eta baliabide informatikoak...

Euskara maila hobetu nahi duten langileek euskara ikastaroetan parte hartzeko baliabideak eskaini eta parte-hartzea bultzatu, Udalak eta Euskarabideak ezartzen dituzten baldintzekin. Euskara maila egokia izanik, baina eguneroko lanak euskaraz egiteko zailtasunak dituzten langileei trebatzeko aukerak eskaini. Trebatzailearen laguntzari esker, lana euskaraz egiteko baliabideak eskuratzeko, idatziak estandarizatzeko aukera, adibidez.

### **4.4 Hizkuntza kudeaketa**

Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea, euskararen kudeaketa Udalaren kudeaketa orokorrean txertatzea eta Udaleko zerbitzuen prozesuetan hizkuntza txertatzea. Langileei Euskararen ordenantzak ezagutzera eman eta hauen betetze maila hobetzea bermatu; langileei ordenantzen berri emateko protokoloa osatu.

#### **4.4.1. Sortze hizkuntza**

Langileek laneko idatziak euskaraz sortzea sustatzea. Langileen gaitasun maila kontuan hartuta itzulpen zerbitzura jo gabe testuak garatzeko ahalmena izatea sustatu beharko litzateke. Horretarako, erakundearen behar besteko laguntza izanen du langileak (trebakuntza saioak, zuzenketa programak...).

#### 4.4.2. Hizkuntza irizpideak

Garesko Udalak lehen lehenik hizkuntza irizpideak diseinatu, adostu eta ezarri beharko lituzke.

Gaur egun langile aunitzek euskaraz lan egiteko zailtasunak dituzte, maila batean edo bertzean, eta orokorrean, udal barne funtzionamenduan gaztelaniaz lan egiten da. Garbi dago herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko bi hizkuntzak berdintasunez erabili behar direla, baina horretarako lanketa berezia egin behar da eta Garesko Udala hastapenean dago. Bi hizkuntzen erabilera zehaztea eta jarraipenerako prozedura finkatzea beharrezkoa izanen da.

#### 4.4.3. Hizkuntza eskakizunak

Garesko Udalean hiru langilek dute hizkuntza eskakizuna. Gainerako postuetan kontratazio bidez euskara meritu gisa baloratzen da, baina ez da ezinbertzekoa.

Langile batzuek zailtasunak dituzte eguneroko lanak euskaraz egiteko. Hala bada, arazoari irtenbidea emateko trebakuntza saioak eta arreta pertsonalizatua eskaintzea proposatu ahalko litzateke. Trebakuntza era puntualean eskainia, hau da, langile bakoitzak dituen behar jakinen arabera, adibidez, txostenak egiten trebatzeko, oharrak idazten trebatzeko e.a., egoki irizten den ordu kopurua zehaztuz eta, ahal dela, saio pertsonalizatuak antolatuz, eraginkortasunari begira.

#### 4.4.4. Langileen partaidetza eta haien balorazioa planarekiko

Langileei begira, langileen parte-hartzea sustatze aldera Euskara Zerbitzuak antolatu edota parte hartuko duen ekimenetan gonbidapena egin eta ekintza bideragarriak proposatu. Bertzalde, komeni da lidergoa duten ordezkari politikoak zein langileak identifikatzea eta pertsona horiek inplikatzeko Erabilera Planaren helburuak betetze aldera.

## 4.5. Kudeaketa sistema

Planaren jarraipena eta Euskararen ordenatzen betetze maila handitu.

### 4.5.1. Lidergoa eta parte-hartzea

Plan honen betetzeko ezinbertzekoa izanen da politikarien inplikazioa. Bilakaera aztertu eta urratsak ongi kudeatu daitezela bermatzea garrantzitsua da. Erakunde-ordezkariek erabilera-planetako ekimenetan, batzordeetan, jarraipen-bileretan eta bestelako organoetan parte hartzea. Planaren jarraipenaz gain, euskara ordenatzen jarraipena ere egitea beharrezkoa da.

Giza baliabide eta ekonomikoak eskaini eta hizkuntza politikan erabakiak hartu aldaketak eman ahal izateko.

### OHARRAK:

#### Musika eskola

Garesko herritarren eta Udal barne diagnosian agertu den gaia izan da. Honen inguruan kezka dagoela adiera da, izan ere, musika eskolan ez da euskarazko zirkuiturik bermatzen. Garesen D ereduko matrikulazioa % 85a dela ikusirik eta Udal eskumena duen erakundea izanik, musika eskolako mikroplan propioa egitea proposatzen dugu plan honek irauten duen bostz urtetan: azterketa diagnosia egin eta bertako plan bat proposatu.

## 5- 2023-2027 PLAN ESTRATEGIKOAREN ADIERAZLE TAULA

ARDATZAK, ELEMENTUAK ETA ADIERAZLEAK	HASIERAN				AURREIKUSITAKOA			
	GAZTELANIA	EUSKARA	ELE BIETAN		GAZTELANIA	EUSKARA	ELE BIETAN	BAI/EZ
ZERBITZU-HIZKUNTZA	Helburua: Euskararen presentzia eta erabilera indartzea herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.							
ERAKUNDEAREN IRUDIA	Helburua: Jendurreko guneetan jarrera proaktiboa erakustea herritarrei euskara erabiltzera gonbidatzeko (identifikagarriak erabilia...).							
Eraikinetako irudi korporatiboa	Helburua: Orain arte egindako mantendu eta hemendik aitzin egiten den irizpide berarekin segitu, ahal den neurrian euskarari lehentasuna emanez.							
Eraikinetako errotulazioa orokorra	% 10	% 0	% 90		% 0	% 0	% 100	
Erakundearen irudi korporatiboko elementuak	% 0	% 0	% 100		% 0	% 0	% 100	
Erakundearen papereko argitalpenak	% 10	% 5	% 85		% 0	% 10	% 90	
Hedabideen bitartez zabaldutako iragarki eta publizitatea	% 0	% 0	% 100		% 0	% 0	% 100	

<b>Ingurune digitala</b>	Helburua: Webgunean eta sare sozialetan orain arte egindakoa mantendu.							
Webgune eta sare sozialen edukia	% 0	% 0	% 100		% 0	% 0	% 100	
<b>HERRITARREKIKO HARREMANAK</b>	Helburua: Zerbitzuetan euskararen erabilera indartzea euskaraz egiteko hautua egin duen herritarra euskaraz artatua izan dadin							
<b>Herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan.</b>	Helburua: Herritarrekiko harremanetarako idazkietan euskararen ehunekoak goiti egitea.							
Idatzizko harremanak	% 75	% 1	% 24		% 30	% 10	% 60	
Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak	% 58	% 42	% 0		% 100	% 0	% 0	
<b>Herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua emateko orduan.</b>	Helburua: Herritarrekiko harremanetan ahozko arreta euskaraz ere egitea. Hasierako agurra ele biduna.							
Harrera	% 80	% 20	% 0				%10	
Telefonoz, online eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak	% 80	% 20	% 0				%10	
Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak	% 60	% 40	% 0			%20		
<b>LAN-HIZKUNTZA</b>	Helburua: Euskararen erabilera areagotzea lan harremanetan.							

<b>BARNE HARREMANAK</b>	Helburua: Lan bileretan eta barne harreman idatzietan euskara gehiago erabiltzea. Hizkuntza kudeaketaren lanketa egitea.							
<b>Barne harremanak idatziz</b>	Helburua: Idatzizko komunikazioetan euskararen erabilera areagotzea.							
Lan-bileretako idatziak	% 90	% 0	% 10			%20		
Erakundearen barne harremanetarako idatziak	% 60	% 0	% 40				%5	
<b>Barne harremanak ahoz</b>	Helburua: Ahozko komunikazioetan euskararen erabilera areagotzea.							
Erakundearen barruko lan-bileretako ahozkoak	% 90	% 0	% 10				%5	
Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak	% 80	% 20	% 0				%5	
<b>Baliabide informatikoak</b>	Helburua: Euskarri informatikoen euskarazko bertsioa ere egotea eta horiek erabilera sustatzea.							
Euskarazko bertsioen erabilera	% 80	% 20	% 0					
<b>PERTSONEN KUDEAKETA</b>	Helburua: Pertsonen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen erabilera indartzea.							
<b>Laneko prestakuntza</b>	Helburua: Euskarazko prestakuntzaren eskaintza areagotzea eta eskaera sustatzea.							
Laneko prestakuntza eskaintza	% 80	% 20	% 0			%25		
Laneko prestakuntza egindakoak (hondar 12 hilabeteetan)	% 100	% 0	% 0					



<b>KANPO HARREMANAK</b>	Helburua: Euskararen erabilera areagotzea kanpoko erakundeekiko harremanetan.							
<b>Administrazioa</b>	Helburua: Euskararen erabilera areagotzea herri administrazioekiko harremanetan.							
Administrazioekiko idatzizko harremanak	% 82	% 1	% 17		% 65	% 5	% 30	
Administrazioekiko ahozko harremanak								
<b>Erakunde pribatuak: finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak, etab.</b>	Helburua: Euskararen erabilera areagotzea hornitzaileekiko harremanetan. Ez da lehentasunen artean konkatzen.							
Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak	% 81	% 1	% 18		% 65	% 5	% 30	
Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak								

<b>KUDEAKETA SISTEMA</b>	Helburua: Euskararen kudeaketa aurreratua bermatzea.							
<b>ESTRATEGIA: Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea</b>	Helburua: Euskararen kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzea.							
Kudeaketa planaren jarraipena								%100

ordezkari politikoek egitea (0- %100)								
Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze-maila (0-100%)								%20
Euskara sortze hizkuntza (0- 100%)								%10
Dokumentuen estandarizazioa (0-100%)								%10
<b>HERRITARRAK eta ZERBITZUA:</b> Hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan eta zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea	Helburua: Erakundeko zerbitzuen prozesuetan hizkuntza txertatzea.							
HOElen betetze maila (0-100%)								% 50
<b>PERTSONAK:</b> Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea	Helburua: Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea.							

Guztira egiaztatutako langileen hizkuntza eskakizunak								%20
Erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna								%30
Langileen eta erakunde- ordezkarien balorazioa erabilera planarekiko								
Langile eta erakunde ordezkarien parte hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan								% 100